

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

#### Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen datuen babeseko ordezkaria izendatzea

2016an, Europako Batasunak Datuen Babeseko Arautegi Orokorra (DBAO) onetsi zuen, eta nahiz eta urte horretan sartu zen indarrean, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera aplikatuko da. Nola arautegi horrek ez duen behar Espainiako ordenamendu juridikorako transposiziorik, haren edukia zuzenean aplikatu daiteke.

Europako arau horrek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babeskoa, eta hura garatzeko arautegia bazter uzteaz gain, hainbat aldaketa sartzen ditu materia bideratzeari dagokionez, aurrerapausoak eman baitira eta araua betetzen dela kontrolatzean oinarritutako eredia erabili ordez erantzukizun aktiboan oinarritutako beste bat erabiliko da, zeinaren bidez arau arduratsu eta benetan beteko dela bermatuko baita. Hartara, sistema formalista eta itxi batetik prebentzioan oinarritzen den eta arau hausteari aurrea hartzen dion arrisku kudeaketa sistema ireki batera igaro da.

Horiek horrela, Datuen Babeseko Lege Organiko berria erregistratzen da, zeina izapidetzen ari baitira.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak konpromisoa hartu du arauak, prozedurak eta praktika onen agiriak garatu eta martxan jartzean aurrera egiten jarraitzeko eta egotzi zaizkion esku-menen arabera une bakoitzean kudeatzen duen informazioaren tratamenduaren beharretarako egokiak diren baliabideak pixkanaka bereganatzen joateko. Horrek guztiak informazioaren segurtasuna bermatzea eta datuen babesari buruzko araudia betetzea ditu helburu.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak premia dauka bere barne antolamendua eta bere lan prozesuak egokitzeko, bere egitearren lege berriek jasotzen dutena, eta horrek dakarrena da ez bakarrik neurri teknologikoak sartzea, baita premia ere erakunde guztia araudi berriak xedatzen duenera egokitzeko eta eman beharreko estaldura juridiko guztia emateko arloari buruz ematen diren erabaki guztiei.

Esparru juridiko honen elementu nagusia datuen babeseko ordezkaria (DBO) da, Datuen Arautegi Orokorra nahitaezko gisa sartzen duen figura datu pertsonalen tratamendua agintaritza edo erakunde publiko batek egiten duenean, eta zeinaren egitekoa baita ahalbidetzea lege xedapenak bete daitezela eta bitartekari jardutea interesdunen artean.

Hauexek dira ordezkariaren eginkizunak, arautegiaren 39. artikuluan zehaztuta daudenak:

- Informazioa eta aholkularitza ematea tratamenduaren arduradunari eta tratamenduekin diharduten langileei, arautegi honek eta gainerako araudiak datu babesaren arloan esleitzen dizkieten betekizunei buruz.

- Gainbegiratzea betetzen dela arautegi honetan eta datu babesaren arloan aplikagarri den gainerako araudian xedatutakoa, bai eta arlo horren tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen politikak, barnean sartzen direlarik erantzukizunen esleipena, kontzientziazioa eta tratamenduaren eragiketetan parte hartzen duten langileen prestakuntza, eta kasuan kasuko auditoriak.

- Datu babesaren gaineko eraginaren ebaluazioaren inguruan eskatzen den aholkularitza eskaintzea, eta hura aplikatzen dela gainbegiratzea.

- Kontrol agintaritzarekin lankidetzan aritzea.
- Kontrol agintaritzarekiko harremanetarako gune moduan jardutea tratamenduari buruzko gaietan, barnean sartzen delarik aldez aurreko kontsulta, eta kontsultak egitea, hala behar izanez gero, beste edozein gairi buruz.

Horretarako, hau egin beharko da:

- Bermatzea parte hartuko duela datuen babesari buruzko arlo guztietan.
- Eman beharreko baliabide guztiak ematea hari bere egitekoak egin ditzan.
- Bermatzea modu independentean jardun ahalko duela.
- Ahalbidetzea eskura izango dituela datuak eta prozesamendu eragiketak.
- Ofizialki jakinaraztea haren izendapena.
- Ahalbidetzea prestakuntza etengabea izan dezala.

Hortaz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen segurtasuneko antolamendu eredu berria definitu eta ezartzeko hartu behar den lehenengo neurri gisa, beharrezkoa da datuen babeseko ordezkaria izendatzea, zeina arloan gehien dakiena baita, eta hark emandako jarraibideak bete beharko dituzte erakunde horretako langile guztiek.

Zerbitzu kontratu baten esparruan eginkizunak betetzen dituen datuen babeseko ordezkari bat izendatzearen inguruan DBAOren 37.6 artikulua emaniko ahalmenaz baliatuz, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatu eta GOFeko Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren proposamenenez, eta kontseilu honetan gaiaz eztabaidatu ondoren, gaurko egunez eginiko bilkuran, ondoko erabaki hau hartzen da:

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Vadillo Asesores Soluciones Jurídicas SL. enpresa izendatzea, pertsona bakarreko organo gisa, datuen babeseko ordezkariaren eginkizun eta eskumenak gauzatzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kontura, Datuen Babeseko Arautegi Orokorrean xedatutakoaren arabera. Izendapen hori aldi baterako izango da; hain zuzen ere, datuen babeseko aholkularitza orokorreko zerbitzua kontratatzeko egin behar den espedientea izapidetzen ari den bitartean.

Bigarrena. Erabaki honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Gasteiz, 2018ko urriaren 18a

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria*  
**MARIAN OLABARRIETA IBARRONDO**

*Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria*  
**MIREN SARATXAGA DE ISLA**